

## ARANZADI ERAZTUNTZE BULEGOKO DOKUMENTUAK

### ERAZTUNLE AZTERKETARI BURUZ JAKIN BEHARREKOAK

Bertsioa: 2026ko maiatza.

Dokumentu hau honela aipatu:

*Aranzadiko Eraztuntze Bulegoa, 2026. Eraztunle azterketari buruz jakin beharrekoak, 2026ko maiatzeko bertsioa. Aranzadi Zientzia Elkarte. Donostia*

## SARRERA

Aranzadi Erantzuntze Bulegoko Erantzunle Aritu titulua lortzeko azterketak 20 galdera ditu. Azterketak egitura hau dauka:

- ✓ Espeziea, adina eta sexua identifikatzeko 16 galdera. Galdera bakoitzak puntu bat balio du.
- ✓ Muda fitxa betetzeko galdera 1. Galdera honetan gainera, espeziea, adina eta sexua ere zehaztu behar dira. 2 puntu balio ditu.
- ✓ Hainbat galdera teoriko: erantzunlegaiak baimena administratiboekin, proiektuen antolaketarekin, erantzunketa datuak bidaltzeko moduarekin, etab.-ekin erlazionatutako galderari erantzun behar die. 2 puntu.

Orokorrean, espezieen identifikazioari buruzko galderak (muda fitxa barne), talde taxonomiko hauek barneratuko dituzte:

- ✓ 9-11 paseriforme.
- ✓ 2-3 harrapari.
- ✓ Zangaluze, itsas-txori, ardeido, ahate etab.-en taldeko 2-3 ale.
- ✓ Aurretik aipatutako talde taxonomikoetan barneratzen ez diren beste 2 espezie.

Azterketa gainditzeko, erantzunlegaiak 20tik gutxienez 15 galdera ongi erantzun beharko ditu. Azterketara aurkeztu ahal izateko, 60 jardunalditan a parte hartu dela eta gutxienez 60 espezie desberdinetako 1500 ale (gehenez 100 ale espezie bakoitzeko) maneiatu direla ziurtatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Hona hemen azterketan ager litezkeen galderen adibide batzuk.

.

## IDENTIFIKAZIOA

1. Argazkian agertzen den hegaztiaren espeziea, adina eta sexua zein diren adierazi. Ale honen harrapaketa datuak hauek dira:

- Data: urtarrilak 10.
- Lekua: Arnedo (Errioxa).
- Hego-luzera: 415 mm.
- Pisua: 1150 g.
- Inkubazio-plaka: 0.





Arrazoitutako erantzuna:

*Buteo buteo. Tamaina ertaineko eta kolore arreko harraparia, nahastezina. Iris iluna eta hanka horiak. Buztaneko barra-patroian Pernis apivorus-en desberdina da.*

*Adina (EURING): 7. Bi luma belaunaldi oso argi bereizten dira; zaharrenak (RR2-5; P7 a 10, S6 y TT) gazte diseinua dauka: puntako barra iluna helduetan baino estuagoa da. Zapelatzen beren lehen muda osoa beren bizitzako bigarren udaran egiten dute (EURING 5) baina muda prozesu honek 2-3 urte irauten ditu. Urtarrilean harrapatu zenez, bi luma belaunaldi ikusten ditugunez eta hauetako bat gazte lumajeak osatzen duenez (ez oraindik du muda osoaren lehen zikloa osatu), 7 adina duela jartzen dugu.*

*Sexua: emea (neurri biometrikoetan oinarrituta).*

2. Argazkian agertzen den hegaztiaren espeziea, adina eta sexua zein diren adierazi. Erantzuna labur arrazoitu. Ale honen harrapaketa datuak hauek dira:

- Data: irailak 10.
- Lekua: Mallorca.
- Hegos: 82 mm.
- Pisua: 14,2 g.
- Inkubazio-plaka: 0.





Arrazoitutako erantzuna:

*Phoenicurus phoenicurus. Espeziea hau beste batzuekin nahastea oso zaila da, batez ere argazkian bezala alea arra denetan.*

*Adina (EURING): 4. Luma estalgarri handietan, luma tertziarioetan edota sekundario eta tertziarioen artean ez da muda mugarik behatzen eta beraz ezin du 3 adina izan. Muda osoa burutu duen alea da.*

*Sexua: arra (kolorazioan oinarrituta).*

3. Argazkian agertzen den hegaztiaren espeziea, adina eta sexua zein diren adierazi. Muda-fitxa ere osatu. Erantzuna labur arrazoitu. Ale honen harrapaketa datuak hauek dira:

- Data: uztailak 10.
- Lekua: Gorbea, Bizkaia.
- Hegos: 89 mm.
- Pisua: 21,6 g.
- Inkubazio-plaka: 0.







**4. Zu bizi zaren probintzian kaio hankahoriak PVCko urrunerako irakurketarako eraztunak erabilia markatzeko proiektu bat habian jartzeko emango zenituzkeen urratsak labur azaldu.**

Erantzun arrazoitua:

*Lehenik eta behin, lan egin nahi dudan kolonietan jada beste talde batzuk lanean ez daudela ziurtatuko nuke. Bertan proiektu bat martxan egonez gero, laguntzeko modua zehazteko beraiekin hitz egingo nuke. Inor lanean ez badago, crbirding-eko kaioen koordinatzaileari kode bat egokitzeko eskatuko nioke. Kode hau erabilia PVC eraztunak fabrikatzen dituen hornitzaile bati eskaria egingo nioke. Prozesu honek guztiak irauten duen bitartean, Erantzuntze Bulegoari pausu guztien beri emango nioke. Aleek PVCzko eraztunarekin batera metalikoa ere eraman behar dutenez, honekin batera, Erantzuntze Bulegoa bitartekari moduan izanda, behar den baimena administratiboa eskatuko nuke (proiektua bidaliz).*

Erantzun arrazoitua (baliokidea):

*Proiektua bidalita eta Erantzuntze Bulegoa bitartekari izanda, baimena administratiboa eskatuko nuke (aleek PVCzko eraztunaz gain metalikoa ere eraman behar dutelako). Gainera, Erantzuntze Bulegoari urruneko irakurketarako kode bat eskuratzeko eta mota honetako eraztunak erosi ahal izateko eman beharreko urratsez galdetuko nioke.*

**5. Eraztunle Espezifiko moduan altan emateko eman beharreko pausoak zeintzuk diren azaldu.**

Arrazoitutako erantzuna:

*Erantzunle Espezifikoek betebeharrak hauek dituzte:*

- *Erantzunle Espezifiko moduan alta emateko eskaera formala egin.*
- *Proiektua bidaltzea.*
- *Erantzunle Aritu baten bermea bidaltzea.*
- *Aranzadiko kide moduan alta ematea.*
- *Erantzuntze Bulegoko Araudia beteko duela dioen idazki bat sinatu eta bidaltzea.*

*Eskaera onartzen bada, Erantzunle Espezifikoak baimena eskaerei zein eraztunketa eta soberako materialaren datuen bidalketari dagozkion epeak eta betebeharrak konplitu beharko ditu.*